

Emakumeen rola Irango historian



SHEIDA BESOZZI
IKERTZAILEA

Hogei urte bete dira Irango Iraultza 1979ko otsailaren 11n amaitu zenetik. 1977 eta 1979 artean, indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko hainbat protesta piztu ziren, Pahlavi monarkaren diktadura erortzen lagundu zutenak. Baina Iraultza Islamikoa ez da izan Irango herritarrak protagonista izan dituen indarkeriarik gabeko lehen ekintza multzoa. Lehenengoetako bi Tabakoaren Protestak (1891-1892) eta Iraultza Konstituzionala (1906-1911) izan ziren. Bi kasu horietan, tabakoaren aurkako boikota, bazarretako grebak eta meskitetako eserialdiak Irango herriak erabili zituen indarkeriarik gabeko erresistentzia zibileko teknikak dira. Tabakoaren Protesten kasuan, Qajar dinastiak Britaniar Inperioari eman nahi zion tabako-salmentaren monopolioaren aurka borrokatu ziren herritarrak; Iraultza Konstituzionalarenean, aukeratutako lehen parlamentua sortzeko. Hori esanda, oso zaila da liburuen bidez Irango emakumeek historian izandako parte hartzea ezagutzera. Badakigu han egon

Irango emakumeak subjektu pasiboak dira iruditeria horretan, 1979tik eskubideak sistematikoki galdu dituztenak. Kontutan hartu gabe, adibidez, herrialdeko mugimendu feministaren rol aktiboa

zirela borrokan, beren kideekin kalean edo espazio pribatuan. Baina ia ezinezkoa da subjektu aktibo gisa agertzen dituen kontakizunik aurkitzea.

Ez dira Irango emakumeek ikusezintasuna jasan duten aldi bakarrak herrialdearen historia egitean –ordea, Planetaren luze-zabalean erreproduzitu eta sistematizatu den fenomenoa da-. Ikusezintasun horrek emakume

irandarren mendebaldeko iruditeria *mainstream*-a sustatzen du. Irango emakumeak subjektu pasiboak dira iruditeria horretan, 1979tik eskubideak sistematikoki galdu dituztenak. Kontutan hartu gabe, adibidez, herrialdeko mugimendu feministaren rol aktiboa, mende bat baino gehiagoko historia duena eta diasporan ere jarraipena duena. Irango feminismoaren borroka nagusietako bat Yek Milyun Emzā barā-ye Laghv-e Qavānin-e Tab'iz Āmiz (Milioi bat Sinadura Kanpaina) mugimendua da. 2006an sortu zen, eta emakumeak bigarren mailako herritarrak izatea eragiten duten legeak erreformatzea du helburu nagusi. Ibilbide ezberdinetako emakumeak biltzen dira bertan: feminista islamiarrak, laikoak eta pragmatikoak. My Stealthy Freedom (Nire askatasun klandestino) eta White Wednesdays (Asteazken zuriak) diasporan sortutako mugimenduak adibide berriago batzuk dira. Iran barruko eta diasporako feministen ekintzak eza-gutzeak emakumearen subjektu pasiboa izaera deseraikitzen laguntzen digu. ●

 ARGIA

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak